


**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA** **ARGENTINAR ERREPUBLIKA, 1**  
**A MAILA** **ARGENTINAR ERREPUBLIKA 1, ERREGINA ERREGENTEA 8-9 ETA OKENDO PLAZA 1**



**Egilea eta data: Francisco Urcola, 1910**

#### Deskribapena

Eraikin berezia hiriaren barruan. Duela gutxi birgaitu zuten. Maria Cristina hotelarekin batera, Okendo almirantearen plaza osatzen du. Jatorrian, itsasorantz orientatuta zegoen eta, gau egun, Urumea ibaiaren bokalerako perspektiba du. Multzoak ibaiaren ezkerreko ertzaren profil bereizgarria du eta, bestetik, udaletxea beste muturrean duen Boulevardaren hasiera dakar. Donostiako Sustapen Sozietateak, lehiaketa baten ondoren, Francisco Urcola arkitektoari zuzendu zion proiektua. 1900eko Parisko Erakusketa Unibertsalean Espainiako pabiloiak (Jose Uriosteren obra) izandako arrakastaren ondorioz garai hartan gorantz ari zen estilo neoplatereskoaren barruan eraiki zuten. Fatxadak, zimenduak eta horma nagusiak hareharrizkoak ditu. Forjatuak eta pilareak, palkoak eta anfiteatroak, eta ahokadura-arkuak hormigoizkoak dira. Estalkiaren eta kupularen egitura, berriz, metalezkoa da jatorriz. Fatxadetan, konposizio bilduma anitza biltzen da, gainjarritako bi ordenaren eskema orokor batetik erremateko atikoraino. Batera agertzen dira, sorta bakoitzaren barruan, hainbat kurbaduratako erdi puntuko arkuak, arku beheratuak, arku eliptikoak, arku zapalak, etab., bai eta serieko eta banandutako bao dintelduak ere. Eraikinak argiro adierazten du bere bolumetria, hartzen duen espazioaren arabera. Galeria banaz errematatutako eskaileren dorreek ahalbidetzen dute ibairantz orientatutako fatxada nagusiarekiko elkargunea. Eraikinaren silueta, berriz, aretoaren kupulagatik eta agertokiaren estalkiagatik nabarmentzen da. Eraikina ibairantz dago orientatuta, bai fatxada nagusian, bai oinplanoaren ordenan. Atondoaren gainean kokatutako foyeraren ondotik aretoa dago. Aretoa ferra motakoa da, eta besaulkiz, plateaz, palko nagusiz, eszenaurrez, anfiteatroz eta galeriaz edo paradisuaz osatzen da. Agertokiak 12 m-ko ahokadura du, 11 m-ko hondoaz. Dekorazioaren gauzarik aipagarrienak dira aretoaren sabaia (Ignacio Ugarteren obra) eta atondoko triptikoa (urrezko mosaikoaren hondoaren gainean pintatutako hiru dekorazio panel, Ascensio Matiarenen obra).

#### Babes erregimena

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzarekin loturikoa.
- \* Berriazko erregimena:  
"Okendo plaza" multzo monumentalean sartzarearen ondoriozkoa. Halakotzat deklaraturako dago urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez (horren bitartez, era berean, kultura ondasun kalifikatutzat deklaraturako dago, multzo monumentalaren kategoriaz, Santiago bidea).